# 5. Susmoaren filosofoak: Freud, Marx eta Nietzsche

Marx eta Nietzsche

# * Susmoaren filosofoak: Freud, Nietzsche eta Marx. Haien pentsamenduari buruzko sarrera

Freud Marx Nietzsche



Paul Ricouerren arabera, **“susmoaren maisuak”** dira, giza kontzientziaren eta gizartearen funtzionamenduaren azpian dauden mekanismo ezkuztuak azaltzeagaitik

# XX.Mendeko pentsamoldearen oinarriak: Marx, Nietzsche, Freud, Darwin.

Darwinek (1809-1882) eboluzioaren teoria azaldu zuen "*Espezieen jatorria*" (1859) liburuan. Gizakia bere aurrekoen eboluzioaren emaitza da, baina gizakiek ez dute helburu zehatzik, ez dute nozio finalistarik.

Bere teoriak arima eta kreazionismoa baztertzen ditu.
Darwinismoak bitalismoan eragina edukiko du.
"Hautaketa naturalaren" eragina "darwinismo sozialaren" kontzeptuan.



Freudek (1856-1939) kontzientzia arrazional faltsua kritikatzen du. *Psikoanalisia*ren aitarentzat, giza motibazioak irrazionalak dira eta inkontzienteak. Gizakia etengabeko barne-borrokan bizi da bere instintuen, bulkada suntsitzaileen eta bere kultura-giroaren




Plazeraren printzipioa eta errealitatearen printzipioen arteko borroka.




rtve play
this is philosophy

Marx: aldaketaren motorra ekonomia da
Karl Marxek (1818-1883) arazoa detektatzen du, ideologia materialismoak eta interes ekonomikoek ezkutatutako kontzientzia faltsua dela ohartuta.

Nietzsche: moralaren balioak dekadenteak dira Nietzschek (1844-1900) historian zehar mendebaldeko gizartean nagusi izan diren balio faltsuak aldatzeko beharraz hitz egiten du, bizitzaren aurkako erresuminetik sortzen den moraltasuna.

# Karl Marx (1818-1883)



- Errenanian jaio zen (Prusia)
- Bere familia burgesa zen
- Zuzenbidea eta filosofia ikasi zituen.
- Parisen Engels ezagutu zuen eta berarekin batera "*Alderdi komunistaren manifestua*" idatzi zuen.
- Vienan "Justuen Liga/Komunisten Liga" ezagutu zuen.
- Prusiatik kanporaturik Londresera joan zen. Han "*Kapitala*" idatzi zuen.
- 1866.urtean Marxek parte hartu zuen Internazional Sozialistak egin zuen lehenengo batzarrean. 1872.urtean Bakuninen anarkistekiko harremanak apurtu eta 1875. urtean alderdi sozialdemokratarekin.

rtve play
this is philosophy

# Marxen humanismoa: alienazioaren kontzeptua

- Marxen ideia zentrala: humanismo erradikala. Gizon gehienak, proletarioak, esplotatuta eta umiliatuta bizi dira, gutxiengo kapitalista eta burgesiak zanpatuak.
- Giza **alienezioa**: gizakiak bere baitako zerbait galtzea. Norberaren burua inorentzea. Alienazio nagusia lanarena da eta hortik sortzen dira beste guztiak.

# *Erlijio-alienazioa

- “ **Erlijioa herriaren opioa da**”. Gizakia mundu errealetik hartu eta fikziozko mundu batera darama. Erlijioak alielatu egiten gaitu.
- Erlijioa da klase gorenak erabiltzen duen tresna, bere menpe daudenak zapaltzeko.
- Ezaugarriak: Gizabanako ziurtasunik eza, apaltasuna, obedientzia…
- Erakunde erlijiosoak menpeko klaseak zanpatzeko agintzen dute klaseen esku dauden tresnak dira.
- Zerua da leku bat non injustiziak konpensatzen diren. Bitartean injustizia horiek Lurrean bere horretan diraute.

# Alienazio ideologikoa

- Marxentzat ideologiak giza gogoaren produktu dira eta langileak alienatzeko baino ez dira erabiltzen. "**<u>Gainegitura ideologikoa</u>**".




- Praktika iraultzaileaz (praxis-a) bakarrik eraman daitezke bukaeraraino posizio teorikoak **<u>azpeigitura ekonomikoa</u>** aldatzen bada.

# * Ekonomia-alienezioa

- Gizakia *Homo faber* da. Ekoizteko ahalmena.
- Giza bizitzaren funtsa lanean datza.
- Nondik dator alienazioa? Langilea hutsik geratzen da: berak eginiko produktuak berarentzat hartu ordez, arrotzak direla uste du.
- Langileak ***Ekoizteko bitartekoen*** jabeari bere ***lan egiteko indarra*** saltzen dioenean bere izaera be saltzen dio, beste pertsona baten tresna bihurtzen da. Langilea gauza bihurtzen da. Kapital bihurturik gertatzen da deshumanizazioa.
- **Kapitalismoa**k klase sozialak sortzen dira: burgesak eta proletarioak. Zapaltzaileak eta zapalduak.
- Proletarioek klase-konzientzia hartu behar dute:

  *“Herrialde guztietako proletarioak, elkar zaitezte!”*



# Filosofiaren historia USE 2021-2023

**Burgesia** eraikitzeko oinarria izan diren produkziorako eta trukerako bideak gizarte feudalaren barnean sortu ziren. Produkziorako eta trukerako bide horiek halako aurreramendu-maila batera heltzean, sistema feudalekoak (gizarte feudalak produzitzeko eta trukatzeko behar zituen baldintzak eta lur-langintzaren eta manufakturaren antolaera feudala, hitz batez, jabeen gobernamendu feudala) zahartuak eta desegokiak ziren, aurreratzen ari ziren **produkzio-indar**rekin alderatuta. Produkzioari erraztasunak eman beharrean, oztopoak jartzen zizkioten, kate gisa funtzionatzen baitzuten. Kateak hautsi beharra zegoen, eta hautsiak izan ziren.

*Marx-Engels: Alderdi Komunistaren manifestua*

1.3. Marx-ek eta Engels-ek baieztatzen dute gizarte osoaren historia klase arteko borrokaren historia besterik ez dela izan.

# * Materialismo historikoa: egitura ekonomikoa eta superegitura

- Marxek ez zuen inoiz esan munduan existitzen den guztia materia hutsa denik baizik eta produkzio zabalketa, truke eta ondasun-kontsumoa gizakien bere mentalitate gobernatzeko oinarri dira.
- Azpiegiturak (egitura ekonomia) gainegitura (ideia, sinesmen, instituzio eta arau multzoa) baldintzatzen du.
- Azpegitura-mailan gertatzen diren produkzio-harremanak aldatzen badira, orduan, aldaketa horrek gainegitura aldatzea ere eskatzen du.

# Dialektika historiaren motorra

- Kontraesan historikoak egitura ekonomikoan kokatzen dira: **produkzio-bitartekoen jabe**en eta **produkzio-indar**ren arteko harremanetan.

Orain arteko gizarte osoaren **historia** klase arteko borrokaren historia besterik ez da izan. Gizon librea eta esklaboa, patrizioa eta plebeioa, baroia eta jopua, kofradia-maisua eta ofizialea, hitz batez, zapaltzaileak eta zapalduak, beti aritu dira elkarren aurka etengabeko gerran; batzuetan agerian, eta beste batzuetan ezkutuan, eta gerra hau beti gizarte osoaren aldakuntza iraultzailearekin amaitzen zen, edo, bestela, borrokan zihardutan bi klaseen birrintzean.

Marx-Engels: Alderdi Komunistaren manifestua

# Filosofiaren historia USE 2021-2024

Orain arteko gizarte osoaren **historia** klase arteko borrokaren historia besterik ez da izan. Gizon librea eta esklaboa, patrizioa eta plebeioa, baroia eta jopua, kofradia- maisua eta ofizialea, hitz batez, zapaltzaileak eta zapalduak, beti aritu dira elkarrenaurka etengabeko gerran; batzuetan agerian, eta beste batzuetan ezkutuan, eta gerra hau beti gizarte osoaren **aldakuntza iraultzaile**arekin amaitzen zen, edo, bestela, borrokan ziharduten bi klaseen birrintzean.

*Marx-Engels: Alderdi Komunistaren manifestua*

1.3. Marx-ek eta Engels-ek baieztatzen dute gizarte osoaren historia klase arteko borrokaren historia besterik ez dela izan.

# * Materialismo historikoa: iraultza

**Diktaduraren bitarteko askatasuna**

- 381. Iraultza biolentziaz lortuko da, eta garaipena eta boterea lortutakoan, proletalgoaren diktadura ezarriko da. Horrela, proletarioek burgesei ondasun guztiak kenduko dizkiete (produkzio-bitartekoak bereziki), eta ondorioz, gizarte osoa ondasun horien jabe bihurtuko da. Klase sozialen arteko desberdintasunak ezabatuko dituzte, eta langilez bakarrik osaturiko gizarte bat eraikiko dute.

# *Gizarte komunista

- 382. Jabe egiten direnean, proletarioek ez dute gehiago sufrituko eta **erlijioaren drogaren beharrik ez dute izango**.

- 383. Historiaren amaiera ez da proletalgoaren diktadura, komunismoa baizik. Klase bakarra geratuko denez, **klase arteko borroka desagertu egingo da**. Ondorioz, ez da indarkeria behar izango. Indarkeriarik gabeko gizarte hori gizarte komunista izango da: historiaren helmuga.

- 384. Komunismoan, **gizaki guztiak askeak izango dira**. Bakoitzari bere ahalmenen arabera eskatuko zaio, eta bere beharren arabera emango zaio.

# * Marxismoaren eragina ondorengo munduan (K)

Gehienez 250 hitzetan

# Testu berria ??

- 24 Burgesiak klase menderatzaile gisa daraman ia ehun urteetan iraganeko belaunaldi guztiek batera baino produkzio-indar kolosalago eta masiboagoak sortu ditu. Natur indarren menderakuntza, makineria, kimikaren erabilera industrian eta nekazaritzan, lurrinezko nabigazioa, trenbideak, telegrafo elektrikoak, kontinente osoen maneaketa, ibaien kanalizazioa, lurzorutik sortutako biztanleriak... Zeinek susmatzen zuen iragandako mendeetan halako produkzio-indarrak lan sozialaren baitan lozorroan zeudenik?

  *Karl Marx eta Friedrich Engels.* Alderdi Komunistaren Manifestua / I. Burgesak eta Prolearioak.

# Testu berria ?? ??

- 25 Ikusia dugu produkzio- eta garraio-bitartekoak, zeinaren gainean garatu baitzen burgesia, gizarte feudalean sortu zirela. Produkzio- eta garraio bitarteko horien garapenaren maila jakin batean, gertatu zen ez zetozela bat gizarte feudalak produzitzen eta trukatzen zuen harremanak, nekazaritza eta manufakturaren antolakuntza feudala, hitz batean, jabetza harreman feudala produkzio-indar garatuekin. Beste hainbeste kate bihurtu ziren. Etenarazi egin behar ziren, eta etenarazi egin ziren.

  *Karl Marx eta Friedrich Engels.* Alderdi Komunistaren Manifestua / I. Burgesak eta Prolearioak.

# USaP eredu berria 2025eko proposamenak

Susmoaren filosofoek hainbat esparrutatik ekin zioten, baina beti modu kritikoan, Jainkoaren ideiak mendebaldeko kulturan izan zuen eraginari. **Marxen hitzetan "erlijioa herriaren opioa da".** Zertarako balio dute erlijioek? Erlijioek lehen betetzen zuten lekua beste zerbaitek ordezkatu al du?

# 2026/02/23



2 AÑOS, 19,90 €



Codenor

Oferta especial: 2 años por 1

IGLESIA ESPAÑOLA >

## El Papa alertó a los obispos de que su mayor preocupación en España es la ultraderecha que intenta “instrumentalizar a la Iglesia”

En su primer encuentro con la cúpula de la Conferencia Episcopal el pasado noviembre, el Pontífice advirtió sobre los grupos ultras que quieren “ganar el voto católico”

# * Kapitalismoaren Kritika: Karl Marx-en pentsamendu iraultzailea eta dialektika Frankfurteko eskolan.

# * Estatuaren interbentzionismo (Popper-Habermas eztabaida)

# * Hannah Arendt-en Totalitarismoaren analisia

# Nietzsche (1844-1900)

- 1844an jaio zen, Prusian.
- Adimen-gaixotasunak eta sufrikario fisikoak.
- Familia oso erlijiosoa zen (Aita eta aititea predikariak ziren)
- Unibertsitatean Teologia eta Filologia klasikoa (pentsaera dionisiakoa) ikasten hasi zen. Teologia utzi zuen.
- Musika konposatzen zuen. Wagner-ekiko adiskidetasuna apurtu zuen kristau izateagatik.
- Erlijio eta feminismoaren aurkakoa.
- Obra nagusiak: *Zaratrusta, Antikristoa, Ecce Homo, Tragediaren sorrera.*
- Hitlerren gustukoa izan zen.

* Kritika mendebaldeko zibilizazioari: bitalismoa

* Apolineoa eta dionisiakoa

* Nihilismoa eta baloreen transmutazioa

* Kritika kristautasunari, jainkoaren heriotza eta Supergizakia

* Botere-nahimena eta betiereko itzulera

**36**

*Moral para médicos*. El enfermo es un parásito de la sociedad. Es indecoroso seguir viviendo cuando se llega a cierto estado. Seguir vegetando, dependiendo cobardemente de médicos y medicinas, una vez perdido el sentido de la vida, el *derecho* a vivir, debiera ser algo que produjese un hondo desprecio a la sociedad. Los médicos, a su vez, deberían ser los intermediarios de ese desprecio: dejar a un lado las recetas y experimentar cada día una nueva dosis de *asco* ante sus pacientes... Hay que crear en el médico una nueva responsabilidad ante todos aquellos en que el interés supremo de la vida *ascendente* exija que se aplaste y que se elimine sin contemplaciones la vida *degenerante;* por ejemplo, en lo relativo al derecho a engendrar, a nacer, a vivir...








# Kristautasun eta metafisikari kritika

- Erlijioa beldurretik sortzen da.
- Erlijioak ez du inoiz egia esan eta Jainkoa eta metafisikari egiten dion erreferentzia guztia bizitzaren kontra dago.
- Kristautasunak antzinatako balio dionisiakoak estali zituen.




| DIONISOS | APOLO |
|---|---|
| • Noche, oscuridad | • Día, luminosidad |
| • Voluntad irracional | • Razón |
| • Cosa en sí | • Apariencia, fenómeno |
| • Uno primordial | • Principio de individuación |
| • Embriaguez | • Ensueño |
| • Dolor cósmico | • Alegría solar |
| VITALISMO Y NIHILISMO | IDEALISMO, RACIONALISMO |




244



- Kristautasuna platonismo herrikoia da: mundu ideal baten asmakuntza, mundu erreal bakarraren mespretxatzen.
- Erlijioak balio dekadenteak baino ez ditu (**esklabuen morala**), ahulentzat eta esklaboentzat: umiltasuna, mendekotasuna, obedientzia, sakrifizioa, errukia … bizi-senen aurkakoak **(Jabeen morala)**
- Bekatua, errua, damutasunaren kontzeptuak bizitzaren aurkako erasoak dira.
- Jabeen aurkako herri zehearen matxinada da erlijioa.
- Kristautasuna gaixoen eta ahulen erlijioa da.

- **Jabeen morala (Moraltasun aristokratikoa edo "Jaunen Morala")**
  - Indibidualismoa eta autoafirmazioa.
  - Balio positiboak: boterea, indarra, adorea, ausardia, eta sormena.
  - Bizitzaren aldeko jarrera: bizitza ospatzea eta sendotasuna goraipatzea.
  - Norberaren borondatea eta gaitasuna nabarmentzea.
  - Morala ez da kanpoko arauetan oinarritzen, baizik eta subjektuaren autoestimuan eta erabakimen propioan.
  - Besteak mespretxuz edo indiferentziaz tratatzen dira
- **Esklabuen morala (Moraltasun morala edo "Esklaboen Morala")**
  - Erreaktiboa eta mendekuzkoa.
  - Balio negatiboak: apaltasuna, obedientzia, sakrifizioa, errukia, eta justizia berdintzailearen aldeko jarrera.
  - Bizitzaren ukazioa: sufrimendua eta ezinbesteko ezintasunaren onarpena.
  - Moral kolektiboa: kanpoko arauak eta besteekiko erantzuna garrantzitsuak dira.
  - Boterearekiko erresistentzia eta hura gaitzestea.
  - Boterearen eta nagusitasunaren aurkako arbuioa; mendekotasunetik sortutako balioen goratzea.

# “Jainkoaren heriotza”

- Ateismoaren aldarrikapena.
- Jainkoa desagertzean, berari atxikitzen zaizkion balio kristauak be desagertu egingo dira.
- Egunean, balio horiek erlijioz kanpo be daude: sozialismoa, demokrazian …
- Jainkoaren heriotzak balio absolutuaren eta moral objektiboaren hondamena ekarriko du.

# Bitalismoa

Bizitzaren lehentasuna: Nietzschek bizitza jartzen du balio goren gisa, biziari eta senari lehentasuna emanez abstrakzio metafisiko, moral eta arrazionalen gainetik. Mendebaldeko filosofiaren zati handi batek bizitzari balioa kendu diola uste du, gizakiaren bizi- eta sormen-bulkadak zapaltzen dituzten ideal transzendenteak inposatu dituelako (Jainkoa, arima edo moral absolutua).



# Filosofiaren historia USE 2021-2024

**Jainkoa**ren ideia bizitzaren antinomia gisa asmatu da. Hark biltzen du, beldurgarrizko batasun batean, kaltegarria den oro, pozoitsua den oro, bizitzaren kontra dagoen oro. Haraindiko munduaren asmakizuna existitzen den mundu bakarraren mespretxurako da, geure mundu honi helburu, arrazoi eta xede oro ebasteko. Arima **hilezina**ren kontzeptuak gorputza erdeinatzen du, bizitzan aintzat hartzea merezi duen guztia ezabatzeko.

F. Nietzsche: *Ecce Homo*

1.3. “Jainkoaren ideia bizitzaren antinomia gisa asmatu da”

# Botere-nahia

- Jainkoaren heriotzarekin hutsune handi bat sortzen da, gizakiak ezereza esperimentatzen du: nihilismoa.
- Nihilismoa mota bi daude:

  - Nihilismo negatiboa edo erreaktiboa: gizakiak bizitzaren zentzua galtzen du.

  - Nihilismo positiboa edo aktiboa: Gizakiak bere balioak sortzen ditu: Supergizakia
- Nihilismo positiboa lortzeko: botere-nahimena behar da.

  Sorten duen, nahi duen eta ahal duen borondatea indar eta intentsitetez. Bultzakada dionisiakoa, gorputza eta lurra aldarrikatzen.

# Jainkoaren heriotza eta azken gizakia: Nihilismoa eta balioen transmutazioa

- Jainkoaren heriotzak gizakia **noraezean** aurkitzeko arriskua dakar: Nihilismoa
- “Hil artean besterik gabe bizi den gizakia”.



# Gizakiaren eraldaketa-prozesua

- **Gamelua:** Idealismoaren menpe dagoen gizakia. Gizakiak bizkarrean duen zama (moralaren handitasuna) arrastaka eta atsekabe handiz darama.
- **Lehoi:** Idealismoaren gainbehera. Bere zama arintzen du.
- **Ume:** haurrak soilik duelako sormena balio berriak sortzeko. Jolasten duan haurra.

# Filosofiaren historia USE 2021-2023

Eta izatez hau da nire ikuspuntua: maisuak, gizadiaren gidariak, **teologoak** izan dira guztiak, eta *décadents* batzuk ere izan dira: hortik dator balio guztiak **bizitza**rentzako etsai transbaloratzea, hortik morala... Moralaren definizioa: morala *décadent*-en idiosinkrasia da, bizitzaz mendeku hartzeko asmo ezkutuarekin, eta arrakastarekin. Garrantzia handia ematen diot definizio horri.

F. Nietzsche: *Ecce Homo*

1.3. “Jainkoaren ideia bizitzaren antinomia gisa asmatu da”

# Supergizakia

- Jainkoaren heriotzaren osteko pausua da supergizakiaren etorrera.
- **Eboluzioaren teoria**: gizaldiz gizaldi, gizakiak bilakaera bat izan duen moduan, aurrera begira ere pentsatzekoa da eboluzionatzen jarraituko duela.
- **Supergizakia**k iraganarekin apurtzea nahi du.
- **Botere-nahiaren irrika** da bizitzaren sustraia edo bultzatzailea.

## Yuval Harari: «El mundo se dividirá en superhumanos mejorados y una masa prescindible»

**ENRIQUE CLEMENTE**
madrid / la voz



[...] Bigarren iraultza kognitibo batek eremu berri imajinaezinetarako sarbidea eman diezaioke Homo Deusi, eta galaxiaren nagusi bihur gaitzake. Ideia hori humanismo ebolutiboaren aspaldiko ametsen aldaera eguneratua da; izan ere, humanismo ebolutiboak duela mende bat iragarri zuen supergizakien sorrera. Hala ere, Hitlerrek eta haren akolitoek supergizakiak hazkuntza selektiboaren eta garbiketa etnikoaren bidez sortzeko asmoa zuten bitartean, XXI. mendeko teknohumanismoak askoz modu baketsuagoan lortu nahi du helburua, ingeniaritza genetikoaren, nanoteknologiaren eta garun-ordenagailu interfazeen laguntzarekin».

HARARI, Y. N.: Homo Deus: Breve historia del mañana,

# Betiereko itzulera

- Denboraren esentzia errepikapena da, une bakoitzean dena berriro hasten da.
- Denbora ez da lineala, ziklikoa baizik.
- Unibertsoak ez du helbururik.
- Bizi behar gara, une hau betierekoa izango bazen moduan.





14

*Mi doctrina es: Vive de tal modo que llegues a desear vivir otra vez, éste es tu deber, ¡porque revivirás de todas formas!*

NIETZSCHE

# Mendebaldeko tradizioaren dekonstrukzioa Friedrich Nietzsche-rengan, eta herentzia postmodernoa.

- Dekonstrukzio:

  - Epistemologiko (eta morala): Egia ( eta ongia) objektiboa eta unibertsala ez da existitzen, norbanakoen ikuspegien eta balorazioen mende dagoen eraikuntza subjektiboa da, **perspektibismoa**

  - Metafisikoa: errealitatetik ihes egiteko modu bat da.

  - Antropologikoa: Dualismoa, gorputzaren eta espirituaren arteko dikotomiari uko egiten dio.

- Herentzia postmodernoa:

  - Egia unibertsalaren kritika erradikala, aniztasuna eta ezberdintasuna funtsezko baliotzat jotzea…

  - Literaturan ironia eta parodian (Jorge Luis Borges), artean: transgresioa eta probokazio estrategia (Dadaismoa, surrealismoa, pop artean), kultura herrikoian (Superman).

# Ecce Homo (1888)




- Nietzschek bere burua eta bere izaera azaltzen du.
- Bere filosofiaren ideia nagusiak azaltzen ditu.
- Moral tradizionala kritikatzen du.
- Balio berriak sortzearen beharra defendatzen du.

# Zaratustra edo Zoroastro



**K. a. VI mendean, Persiako profeta, zoroastrismoaren sortzailea**

**Ideia nagusiak:**

**Ongiaren eta gaizkiaren arteko borroka**.

Munduan bi printzipio nagusi (Dualismo):

- **Ahura Mazda (Ormuz)** → ongia
- **Angra Mainyu** (Ahrimán) → gaizkia
- Gizakiak **ongiaren alde aukeratu behar du**

Gizakiaren **erantzukizun morala** azpimarratzen du.

Mendebaldeko erlijio askotan eragina izan zuen (judaismoan, kristautasunean, etab.).

**NIETZSCHEREN PENTSAMENDUAN**

Zaratustrak **moralaren ideia sortu zuela** (ongi/gaizki bereizketa).

Horregatik, **berak izan behar du moral hori suntsitzen lehena**.

Beraz:
Zaratustra historikoa → **moralaren sortzailea**
Nietzsche-ren Zaratustra → **moral tradizionalaren suntsitzailea**






"Interesgabekoa", "norbere buruaren ukatzailea" kontzeptuan, *décadence*-aren benetako zantzua, kaltegarrizkoak *liluraturik* gelditzea, norbere-etekina-gehiago-aurkitu-*ezina*, buru-suntsiera, orokorrean balio-zeinu bihurturik, "betebehar", "santutasun", "jainkozko" gizakian! Azkenik -hori da beldurgarriena - gizaki *zintzo* kontzeptuan, ahula, gaixoa, gaizki eratua, bere buruarengatiko pairatzaile, *hondoa jo* behar duen guztiaren defentsa - *hautespen*-legea alderantzikaturik; gizaki harro eta ongi eratua, baietz-esalea, etorkizunaz seguru dagoena, etorkizuna bermatzen duenari kontra egitea ideal bihurturik- gizaki horri orain *gaizto* deitzen zaio... Eta hori guztia *moraltzat* sinetsi izan zen! - *Ecrasez l'infâme!* (Zanpatu dongea!).-

9

Ulertu al zait? - *Dionisos Gurutziltzatuaren kontra...*

# USaP eredu berria 2025eko proposamenak

Susmoaren filosofoek hainbat esparrutatik ekin zioten, baina beti modu kritikoan, Jainkoaren ideiak mendebaldeko kulturan izan zuen eraginari. **Marxen hitzetan "erlijioa herriaren opioa da".** Zertarako balio dute erlijioek? Erlijioek lehen betetzen zuten lekua beste zerbaitek ordezkatu al du?